

# Eskubiderik gabeko adingabeak?

Babesik gabeko haur atzerritarrak / Gazteria zigortua



Gasteizen, 2010eko azaroaren 4 eta 5ean

### TOKIA:

Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola  
 Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola  
 Arabako campusa  
 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

#### Antolatzaileak:



SALHAKETA-Araba • Presoen Aldeko Elkarteak



ikusbide

Persona Zigortua eta Espetxeratuaren Behar eta Gizarte Zerbitzuen  
 Inguruko Dokumentazio, Informazio eta Ikerketa Zentria  
 Centro de Documentación, Información e Investigación sobre  
 Necesidades y Servicios Sociales para Personas Presas y Penalizadas

#### Antolatzaileak / Laguntzaileak:



#### Laguntzaileak:



## HELBURUAK

Biltzar honen helburua, eztabaida kritikoa eta ekintzarako proposamenak egituratzea da, beti ere, haurreria eta gazteria baztertuak dituzten behar eta oztopo diskriminatzaileen inguruan sortutako gaur egungo politikekin lotuta. Era berean, topaketa-gune izan nahi du, ikasleentzat, profesionalentzat eta jendartearen baztertuta dauden edo/eta erakundearen zaintzapean aldi baterako harrera-zentroetan nahiz zintzotzeko zentroetan dauden adingabeentzako jendarte-laguntzan lan egiten duten taldeentzat. Horretaz gainera, heziketaren ikuspuntutik, hainbat gairen espezializatorako baliagarria izango den ekintza izango da. Landuko diren gaiak erlazioatuak egongo dira zuzenbide penalarekin eta gizarte langintza eta heziketaren arloekin, haurrak eta gazteak babesteko eta zigorrak betearazteko sistemen barnean.

Helburu orokor hori abiapuntutzat hartuz, Biltzarrak hainbaten heziketa galdekizunei erantzun nahi die –profesional, ikasle, diplomadun eta lizentziatuenei; giza eta gizarte zientzietako jakintza arloetako; eta erakunde eta gizarte elkarteenei ere bai– egoera horiei beste modu batera erantzuteko (eta gaur egungo ekinbideak indartzeko) gizarte ongizatearen politiken bidez.

## METODOLOGIA ETA HARTZAILEAK

Hiru saio egingo dira: guztira bost mahai-inguru osatuko dira, eta hamalau hizlarik eta zazpi moderatzailek hartuko dute parte. Hasierako ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari instituzionalak gonbidatuko dira.

Edonori zuzenduta daude oro har; interes berezia dute adingabeei zuzendutako jendarte-laguntza, zaintza edo tratamenduarekin zerikusia duten elkarte eta erakundeetan aritzen diren profesional eta boluntarioentzat; eta unibertsitateko komunitate osoarentzat dira, eta ukitzen diren gaiengatik, bereziki, gizarte-langintza, gizarte-hezkuntza, zuzenbidea, soziologia, lan-harremanak, enpresa-ikasketak, kazetaritza, psikologia eta historia ikasten dutenentzat.

## KREDITUAK IKASLEENTZAT

Unibertsitateko ikasleentzat, Biltzarreko saioek 15 orduren balioa dute; eta beste 15 emango dira, 2010eko apirilaren amaiera baino lehen aurkeztuko den laburpen-lan bat egiteagatik. Beraz, bi ziurtagiri emango dira: bat parte hartzeagatik, eta bestea lanagatik, finkatutako epearen barruan aurkeztu eta ebaluatu ondoren. Guztira 30 ordu izango dira.

300 pertsonarentzako lekua dugu; beraz, inskripzioa lehenbailehen egitea gomendatzen da, aurreko edizioetan izandako arrakasta kontuan izanik lekuak berehala beteko direlakoan baikaude: «Adingabeokoren lege penal berria» (1998), «Kartzela, Drogamenpekotasuna eta Hiesa, Gizarte lana sistema penalaren aurrean» (1999), «Pobrezia eta arriskua Europan: ongizaterako erronkak Euskadin» (2000), «Kartzela eta Giza Eskubideak: Berme juridikoak, osasuna, giza asistentzia, heziketa eta lana» (2001), «Gazte eta Adingabeok zigortuak: erantzun judizial, hezigarri eta sozialak» (2001), «Etorkinekin gizarte lana eta heziketa hartzaileak jatorrizko herrialdeetan» (2002), «Gizarte politika eta hiritar segurtasuna: Erronkak Europako eta Munduko Euskadi batentzat» (2003), «Gizarte Zerbitzuak eta Kartzela: Alternatibak gaur egungo kultura zigortzaileari» (2004), «Drogei buruzko politika sozialak eta kriminalak» (2005). «Hautzaro eta Gazteria baztertuak. Politika Sozial eta Kriminalak» (2006), «Immigrazioa eta kultura gutxituak. Politika Sozial eta Kriminalak» (2007), «Bitartekaritza gizarte gatazketan» (2008), «Gizarte bazterkeriaren eta pobreziaaren feminizazioaren aurkako borroka» (2009).

## **MATRIKULAREN ORDAINKETA ETA MATERIALAREN GASTUAK:**

Matrikula arrunta eta murriztua da, bere kostua 30 €(\*) baita. Kopuru hori, lehendabiziko egunean banatuko den materialerako izango da. 30 euroko kopuru hori urriaren 30a baino lehen sartu beharko da Vital Kutxako kontu zenbaki honetan: 2097 0152 85 0104893549. Diru kopurua sartzean, *sartu duenaren izena eta lehen abizena zehaztu beharko dira*. Izena lehenbailehen ematea gomendatzen da, gehienetan azken egunaren aurretik agortzen direlako plazak eta orduantxe bukatzen delako matrikulazioa.

Gizarte langintza Eskola Unibertsitateko ikasleek izen-emate orria urriak 22 baino lehen entregatu beharko du. Egun horretan klaseak bertan-behera uzteko ikaslegoaren ehuneko 50 baino gehiagok jardunaldian izena emanda izan beharko du. Horrela ez balitz, ikas-egunak izango dira guztientzat, kongresuan izena eman dutenentzat izan ezik.

(\*) UPWEHU Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako practicumarekin elkarlanean dabilzaten profesionalak dohainik

## **MATRIKULA BIDALI EDO AURKEZTEA:**

Kongresuan izen emateko bide ezberdinak daude:

1. Honoko helbidera posta bidez edo consejerian utzi: . Eskubiderik gabeko adingabeak? Biltzarra. Gizarte Lan- Unibertsitate eskola. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. Los Apraiz kalea, 2, 01006 Vitoria- Gasteiz
2. Fax bidez: 945.013308 izen emate orria eta matricularen ordainketaren agiria gehituz.
3. Helbide elektronikoa honetara ordainagiria eta izenemeate orria eskaneatuta bidaliz:vtgikus@vc.ehu.es

## **INFORMAZIOA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOA**

Astehelenerdik Ostegunera goizez 9.30etatik 12.30etara. 945013324. E-posta: vtgikus@ehu.es

## **INFORMAZIOA. IDAZKARITZA TEKNIKOA:**

945.013324 edo 945-014273. Claudia Venceslao

# **EGITARAUA**

### **AKREDITAZIOA ETA MATERIALA JASOTZEA**

*osteguna, azaroak 4, 9:30ean Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan*

### **INAUGURAZIO EKITALDIA - ORDEZKARI INSTITUZIONAL ETA AKADEMIKOAK**

*osteguna, azaroak 4, 10:00etatik 11:00etara*

## **HASIERAKO SAIOA. LEHEN MAHAI-INGURUA**

*osteguna, azaroak 4, 11:00etatik 14:00etara*

## **DISKURTSOAK ETA POLITIKAK / BAZTERTUTAKO HAURRERIA ETA GAZTERIARANTZ**

### ***Zein jendartek nolako haurreria?***

### ***Hezkuntza askatzailea hezkuntza zigortzailearen aurrean***

*Enrique MARTINEZ REGUERA, pedagogo eta psikologoa, «Psicología de la infancia explotada» eta «Cuando los políticos mecen la cuna» lanen egilea*

## **Ahulenak: adingabe arriskutsuak ala adingabeak arriskuan?**

Santiago LOSADA, irakaslea, adingabeei laguntzeko Kala elkaratearen presidentea, Kordobako Unibertsitateko Kultura arteko Katedrako aholkularia.

## **Haurreria eta gazteria babesgabeari zuzendutako politikak: kritikak eta aukerak**

César MANZANOS, Soziologian doktorea,  
irakaslea Arabako Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan

### **AURKEZLE ETA MODERATZAILE**

Andrea ARISTONDO, gizarte-langilea, Arabako Harresiak Apurtuzeko koordinatzailea.

## **BIGARREN SAIOA**

osteguna, azaroak 4, 15:00etatik 20:00etara

### **HAUR ATZERRITARRAK BABESIK GABE: JENDARTEAREN ETA ERAKUNDEEN ERANTZUNAK**

## **BIGARREN MAHAI-INGURUA**

osteguna, azaroak 4, 15:00etatik 17:30era

### **«Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek» legearen arloan dituzten arazoak**

Itziar BARRENKUA, ARARTEKOAREN aholkularia immigrazioaren arloan

Mikel MAZKIARAN, abokatu, Gipuzkoako SOS Arrazakeria

Carmen COTELO, Adingabeen fiskala Gasteizen

### **AURKEZLE ETA MODERATZAILE**

Tania CAÑAS, abokatu salvadortarra, ESKko immigrazio-bulegoa, ZUZEN sareko kidea

## **HIRUGARREN MAHAI-INGURUA**

osteguna, azaroak 4, 18:00etatik 20:00etara

### **Bakarrik dauden adingabeko atzerritarrentzako aldi baterako harrera-zentroen egoera**

Zuriñe MARTÍN, gizarte-hezitzailea, bakarrik dauden gazte atzerritarrei laguntzeko

Arabako plataformako kidea

Amadou COULIBALY, Adingabea zela zentroetan hartutako gaztea eta Gasteizko Gazte

Afrikarren Batasuna elkarteko kidea

### **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroen ordezkari baliabideak**

Javier BAEZA, gizarte-hezitzailea, apaiza, Entrevías parrokia, Madril

Jonan FERNANDEZ, Baketik zuzendaria, baliabide alternatibo gisa IZEBEA egitasmoa

(Bakarrik dauden adingabe atzerritarren izeba/osaba gisa jokatzeari beren borondatez onartzen duten familien sarea)

### **AURKEZLE ETA MODERATZAILE**

Jakue PASCUAL, Soziologian doktorea eta adingabe atzerritarrentzako etxeetako hezitzailea Bizkaian

## JAIALDIA

osteguna, azaroak 4, 20:00etatik 22:00etara

**MUSIKA ETA GASTRONOMIA EKITALDIA**  
**UNIBERTSITATEKO PABILOIAN (asistentzia aukerakoa)**

## HIRUGARREN SAIOA

ostirala, azaroak 5, 9:30etik 14:00etara

**GAZTERIA ZIGORTUA ETA FUNTSEZKO ESKUBIDEAK KENTZEA**

## LAUGARREN MAHAI-INGURUA

ostirala, azaroak 5, 9:30etik 11:30era

**Zigortutako gazteen eskubideak: mitoak eta errealitateak**

Begoña SAN MARTIN LARRINOA,  
adingabeen Bilboko 1 zk.ko epaitegiko epaile magistratua

**Justizia leheneratzailea eta zigor arloko bitartekotza:**

**gazteen justiziarako aukerak**

Juana BALMASEDA, abokatua, Abokatutzaren EAEko Kontseiluko aholkularia, familia,  
zigor-zuzenbide eta adingabeetan espezialista

**Gazteen justiziarako tresnak:**

**erakundeek «gazte gaizkileak» ekoiztea**

Marta VENCESLAO, gizarte-hezitzailea, antropologoa, irakaslea Bartzelonako Unibertsitatean, Grup de Recerca en Exclusió i Control Social (GRECS)

## AURKEZLE ETA MODERATZAILE

Maria del Mar LLEDÓ, Soziologian doktorea, irakaslea Arabako Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan

## BOSGARREN MAHAI-INGURUA

ostirala, azaroak 5, 12:00etatik 14:00etara

**Adingabea zigortzeko legea: nola eta norekin erabiltzen da**

Enrique DE CASTRO, Madrilgo Barrioseko koordinatzailea  
Gurasoak, Adingabeen zentroetan giltzapetutako gazteak  
Daniel JIMENEZ, Zaragozako ASAPA adingabeen taldea

## AURKEZLE ETA MODERATZAILE

Oiane BEOBIDE, gizarte-hezitzailea zigortutako adingabeentzako zentroetan

## ITXIERA ETA ZIURTAGIRIAK BANATZEA

**ERAKUNDEEN ZAINTZAPEAN ETA BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN**  
**ADINGABEEI LAGUNTZEN DIETEN TALDEEN ARTEKO TOPAKETA**  
(asistentzia aukerakoa) ostirala, azaroak 5, 16:00etatik 18:00etara